

LITERATURAN MURGILDURIK AHOZKO EUSKAL LITERATURA JENDAURREKO AZALPENA



DBHko 2. mailarako materialak. Hizkuntzen Tratatua Bateratua

**HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA
PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS**

DBHko 2. mailarako materialak / Materiales para 2º de E.S.O.

PROIEKTUA / PROYECTO: Literaturan murgildurik

UNITATEAK: **Literaturan murgildurik: ahozko euskal literatura. Jendaurreko
UNIDADES: **azalpena.****

Sumergidos en la literatura. Antología de relatos.

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA: Teresa Ruiz
DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN:

SORTZAILEAK: Maribi Apraiz
AUTORAS: Maitena Olabarriaga

KOLABORATZAILEAK: Marimar Pérez, Adela Fernández, Irene González eta Hizkuntza
COLABORADORES: eta Gizarte esparruko Bigarren Hezkuntzako Aholkulariak

Berritzegune Nagusia (Bilbao)
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

MATERIAL HONEN JABETZA EUSKO JAURLARITZARENA DA
MATERIAL PROPIEDAD DEL GOBIERNO VASCO

2008ko urria
Octubre de 2008

AHOZKO EUSKAL LITERATURA

Denboran zehar literatura sortu duen herri bateko partaide gara. Geure aurretikoei lotutako kultura-tradizio aberatsa daukaten herritarrak gara (Ostadar).

Euskal Herriko ahozko literatura eta, horrenbestez, gure kultura ondarea ezagutuko duzue unitate honen bidez. Horretarako, ahozko literaturako ekoizpen asko entzuteko, irakurtzeko, aztertzeko eta abesteko aukera izango duzue, sarean dauden baliabideetan oinarriturik, batik bat. Beraz, Arte eta kulturarako gaitasuna garatuko duzue ahozko literaturaren ezagutza eta haren gozamenara bideratutako jardueren bidez eta horrekin batera, eskuratuko dituzuen ezagupenek lagunduko dizuete, euskal literaturari buruzko ahozko azalpena egiten ikaskideen aurrean.

Hizkuntzen Trataera Baturaturako material honek gaztelanarako prestatutako ikastunitatearekin batera aurreko ikasmailan eta ondokoetan landu eta landuko diren azalpen testuak lantzea du helburu. Unitate honetan testu-tipo horren barruko testu-genero jakin bat ekoiztuko duzue, ahozko azalpena, hain zuzen. Bestalde, azalpen testua era bateratuan lantzeko bai gaztelania bai euskara irakasgaien arteko zubiak eta biei dagozkien aipamenak izango dituzue jardueretan zehar, arlo batean ikasitakoa baliagarria izango baitzaizue bestean landuko duzuen hobeto ekoizteko.

2.DBHrako proiektuak LITERATURAN MURGILDURIK du izena, eta izenak berak dioenez, bi ikastunitateak literatur testuen inguruan jira eta bira dabilta. Baina literaturaren eremuan alderdi eta ezaugarri ezberdin ugari gurutzatzen dira, bai eta testu genero ugari ere; eta den-denek dute Literaturaren eremuan uztartzeko ezaugarriren bat edo beste. Erdal eta euskal literaturaz arituko zaretenez gero, galdera batzuk egin nahi dizkizuegu lanean hasi aurretik ...

Zer da Literatura?

Edozein testu har daiteke literaturatzat?

LITERATURA TESTU IDATZIETAN BAINO EZ DA AGERI?

Nolako ezaugarriak izan behar ditu testuak literarioa izateko?

Ziur gaude erantzun bat baino bururatu zaizuela. Saiatu elkarrekin erantzun batzuk adosten.

Inspirazio iturri gisa hona hemen zenbait definizio:

"Literatur is the art of words"

"Literatura ez da filosofia, soziologia edo historia bakarrik
Literatura hitzez egindako artea da."

"Literatura es el conjunto de obras literarias producidas en una época"

... eta hitzez egindako artea topatuko duzue gaztelaniazko unitatean irakurri eta landuko dituzuen kontakizun bizi, misterioz, liluraz, abenturaz edo erromantizismoz jositakoetan; bai eta euskarazko unitateko antzinako kondairetan, bertso, kanta, olerki eta ahozko tradizioko adierazpenetan ere...

Unitate hau honako egituraren arabera ardaztuko da:


0. jarduera. Ados jarriko gara.
1. LAN-SEKUENTZIA AHOZKO EUSKAL LITERATURAZ GOZATZEN 1. jarduera. Ipuinak eta kondairak irakurtzen, aztertzen eta eraldatzen. 2. jarduera. Bertsolaritza. 3. jarduera. Erromantzeak, kantak eta eresiak. 4. jarduera. Herri-antzerkia. Pastoralak eta maskaradak. 5. jarduera. Esaera zaharrak, atsotitzak.
2. LAN-SEKUENTZIA AHOZKO EUSKAL LITERATURA. AZALPENERAKO EDUKIA LANTZEN 6. jarduera. Datuak biltzen eta hautatzen. Azalpenaren helburuak zehazten. 7. jarduera. Aukeratutako informazioa antolatzen. 8. jarduera. Edukien koherentzia lantzen. 9. jarduera. Informazioa ondo kohesionatuta azaltzeko baliabideak lantzen.
3. LAN-SEKUENTZIA AHOZKO AZALPENAK NOLA EMAN? EZAUGARRIAK 10. jarduera. Ereduak aztertzen. 11. jarduera. Ez-hitzezko ezaugarriak. 12. jarduera. Azalpena ulergarriago egiteko zenbait estrategia lantzen. 13. jarduera. Hizkuntza-erregistroa.
4. LAN-SEKUENTZIA JENDAURREKO AZALPENA BERA 14. jarduera. Ahozko azalpenaren hezurdura prestatzen. 15. jarduera. Praktikatzen. 16. jarduera. Jendaurrean azaltzen. 16. jarduera. Ondo jaso ditugu entzundako datuak?
Auto-ebaluazioa

0. jarduera. Ados jarriko gara.

Ahozko azalpenerako gaia zehaztuko dugu jarduera honetan. Baina lehendabizi ahozko euskal literaturako zenbait ekoizpen, batzuk ezagunak, beste batzuk ez hain ezagunak entzun, irakurri edota ikus ditzazuen nahi dugu.

Prozedura

Izar eta zinta horietan klikatu eta... entzun, irakurri eta gozatu! Bukaeran galdera batzuk proposatzen dizkizuegu. Ezer egiten hasi aurretik irakur itzazue eta gero, jarduera burutu.





Entzun dituzuen
artean, badago
zuentzat ezaguna
denik?
Noiz eta non entzun
dituzue?

Zein generotan kokatuko
zenituzkete?

- o Ipuin tradizionala
- o Atsotitza
- o Balada
- o Kanta
- o Bertsoa
- o Antzerkia

Ekoizpen horiek
egile ezagunik
dute?

Zein erabilpen-eremutan kokatzen
dira?

- o Literaturan
- o Lagun artean
- o Instituzioetan
- o Komunikabideetan
- o Ikasteko eremuan

Zein helburuz
sortu dira?
Nola iritsi dira
guganaino?

Orain saiatu entzun eta irakrri dituzuenak ondoko koadroan sailkatzen. Puntuetan idatzi :

GENEROA	ADIERAZPENAK
LIRIKOA Barne sentimenduak adierazten dituen poesia mota.	• Dekorazio olerkiak • Kopla zaharrak [' Gabonetakoak (.....),..... San Joanetakoak Kandelari egunekoak...] • XVIII.mendeko kantu lirikoak • Eresiak • •
NARRATIBOA Pertsonaia batzuen barneko zein kanpoko hainbat gertakariren berri ematen duen testua. Istorio bat kontatzen du. (Ostadar)	• • • • Kondairak
DRAMATIKOA Antzeztuak izateko sortutako testuak. Pertsonaia batzuen elkarriketa bidez gertaera batzuk azaltzen dira jendearen aurrean. (Ostadar)	• Maskaradak, inauterietako tragikomediak... • Pastoralak

Koadroa erraz osotu duzue, ezta? Ea orain bi ariketatxo hauek ondo egiten dituzuen!:

ZUTABE HAUETAKO ELEMENTUAK LOTU GEZIEN BIDEZ

ADIERAZPENAK			EZAUGARRIAK
1	BERTSOLARITZA	A	GERTAKARI BATEAN OINARRITUTAKO KANTAK
2	BALADAK	B	HERRI ANTZERKIA
3	PASTORALA	C	IPUINAK, NARRAZIOAK ETA KONDAIRAK
4	HERRI-KONTAKETAK	D	JAKINTZA HERRITARRA
5	ESAERA ZAHARRAK, ATSOTITZAK	E	HERRI-POESIA

ESAN HURRENGO ESALDIAK EGIA ALA GEZURRA DIREN

	EGIA	GEZURRA
Ahozko tradizioak herri-ohiturak mantentzea ahalbidetu du.		
Bertsolaritza ahozko literaturan berria den ahozko poesia da.		
Herri-kontaketek gaur arte iraun dute.		
Maskarada herri-antzerkiaren mota bat da.		
Antzinako pastoraletan bai gizonezkoek bai emakumezkoek hartzen zuten parte.		
...		

Asmatu dituzue erantzun guztiak?


Dena den, lasai! Asmatu dituzuenak nahiz guztiz zehatz erantzuterik izan ez dituzuenak jorratuko dituzue eta ikastunitate honetan; izan ere, euskal literaturari buruzko hainbat ezaugarri aztertzeak aukera paregabea izango duzue. Horretaz gain, bildu eta laburtuko dituzuen datuetan oinarrituta, ahozko euskal literaturari buruzko jendaurreko azalpena egingo duzue.

NEGOZIAZIOA

Prozedura.

Lehendabizi taldeak antolatu beharko dituzue, hirukoak hobe. Ondoren, oso gai zabala denez, hautatu egingo duzue zein adierazpen jorratuko duzuen. Horretarako prestatu dizuegun eskemaz baliatu zaitezketen, zein atal aukeratuko duzuen erabakitzeko. Kontuan izan, bestalde, taldeka gauzatuko duzuen lan osoaren zati bat baino ez dela izango. Beraz, zuen ekoizpena gainontzekoen ekoizpenekin osotuko da. ANIMO! HAUTAKETA ONA EGIN!

Gaia: ahozko euskal literatura



Iturria: www.hiru.com

Beraz, orain erabaki:

Zeintzuk izango zarete taldekide?

Izenak:

Taldekoen iritziak adierazteko zein izango da bozemaile?

Jakizue txandaka arituko zaretela, beraz, txandak antolatu.

Zein atal jorratuko duzue?

Orain, zehaztu ondoko taula honetan zuen taldeak jorratuko duen ahozko literaturaren agerpena kontuan harturik, komunikazio egoerari dagozkion ezaugarri nagusiak:

KOMUNIKAZIO EGOERA	
<i>Euskal ahozko literatura:</i> <i>Atala</i>	
<i>Igorlea</i>	
<i>Hartzailea</i>	
<i>Kanala</i>	
<i>Asmoa</i> (hautatu)	☐ Informatzea ☐ Besteak konbentzitzea ☐ Kontatzea
<i>Erabilpen eremua</i> (hautatu)	☐ Ikasteko eremuan ☐ Komunikabideetan ☐ Instituzioetan ☐ Pertsona arteko harremanetan ☐ Literaturan
<i>Testu tipoa</i> (hautatu)	☐ Narrazioa ☐ Deskribapena ☐ Azalpena ☐ Argudioa
<i>Testu generoa</i> (hautatu)	☐ Dibulgazio artikulua ☐ Fitxa bibliografiakoa ☐ Hitzaldia ☐ Eskola- azalpena ☐ Dibulgazio artikulua ☐ Antologia: erromantzeak, ipuinak... ☐ Aurkibidea ☐ Txostena

1. LAN-SEKUENTZIA AHOZKO EUSKAL LITERATURAZ GOZATZEN

1. jarduera. Ipuinak eta kondairak irakurtzen, aztertzen eta eraldatzen.

Hasierako lan-sekuentziaren helburua literaturaz gozatzea da . Jarduera honetan ipuin eta kondairetan murgilduko gara.

Gure literaturan baditugu geure-geureak diren ipuin eta narrazioak, baina baditugu, era berean, **geure** egin ditugun beste ipuin batzuk ere, Txanogorritxo, kasurako. Charles Perrault-en ipuina oso ezaguna duzue eta ipuinez ipuin aldaera asko izan ditu; esango genuke nork bere bertsioa duela, denoi kontatu eta denok kontatu egin baitugu.


Jarduera honetan ipuin horren bi bertsio ezberdin dituzue. Zuen iritzia jakin nahi dugu!

(Ariketaren iturria: EIBZ materialak. Literatur sorkuntzarako tailerra:
http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/materi1/literatur_sorkuntza.htm)

Prozedura

Taldeka bildu eta arretaz irakurriko duzue *Txanogorritxo Ramalan* ipuina. Erreparatu zuek ezagutzen duzuen ipuinaren bertsioarekin dituen berdintasun eta ezberdintasunei : *Zeintzuk dira ipuinean identifikatzen dituzuen pertsonaia berdinak? Zer ezberdintasun du ezagutzen duzuen bertsioarekin alderatuta? Otsorik bada? Bai, ez? Zer uste duzue?...* Gero, talde handian, ipuinari lotutako zenbait alderdiz jardungo duzue irakaslearekin batera.

Iturria: http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/materi1/literatur_sorkun/dbh1_ipuinak.htm



TXANOGORRITXO RAMALAN

Begoña Montorioren itzulpena

Basamortuko haizeak kiribil luzetan askatu zituen adatsak. Neskatiaren inguruan trostan, goxoki harrotzen zituen hautsak, borobilak eta irudiak marrazten zituen zoruan, eta haren aurpegia atzamar ezti eta epelez laztantzen zuenean, elezaharrak eta urezko ameskeriak murmurikatzen zizkion, bai eta arropak astintzen, hegoak zabaldutako uso baten lumak bailiran.

—Begira nola egiten dudan hegan, Said! Txoritxo bat naiz, ikusten?

Sanaak barre algarak egiten zituen harrien gainetik korrika, jauzika, hanka bat goratuz, gero bestea, txaloka, oin puntetan jarrita eta besoak zabal-zabalik bira egiten zuen, edo airearekin borrokatzen zen hegan eraman ez zezan, tunikapetik sartu eta puxika baten modura puzten zuenean.

Nekaturik, zangoak gurutzatuta jezarri ziren biak, haizea eta neskati, haien azpian zeuden palmondo, zabaltza eta teilatu hautseztatuez harantzago ikusten zituzten fruta-arbolen berde minaz, hori eta laranja ziprztinduriko berde minaz gozatzeko.

Apirileko goiz zehazgabe hartan, Ramala gainean pausatua zen udaberria, isilik, nakar koloreko oihal baten antzera. Han aurrean ikusten zuten errepide handia Nablusera zihoala ari zitzaion kontatzen neskati lagunari, eta beste hura, apur bat eskuinera makurtzen zena, Jerikora zihoala. Handik joatekoak ziren familiako guztiak batera amama ikustera, autobusez, aitzak denbora apur bat hartzen zuenean.

Denbora luzea zen amamaren berririk ez zutela. Hark ez zuen telefonorik eta haren auzoko Bara ez zen jada merkatura jaisten astoarekin, hortaz, inork ez zien amamaren berririk ekartzen. Gauzak horrela, neskatiak amamari bisita egitea erabaki zuen, horretarako mendixkak eta muinoak zeharkatu behar bazituen ere.

Ilusioz beterik eta irribera, amamaren herrixkako arbolen ederra irudikatzen zuen, haien loreen kolore bizia, arkumetxo jaio berrien goxotasuna.

Shadik, Ahmed Amik, Azizak eta Mahmudek, eskolako lagunak, planotxo bat marrazten lagundu zioten eta hura zeraman poltsikoan, arreta handiz tolestuta; alabaina, badaezpada ere, buruz ikasia zuen. Lagunak hasiera-hasieratik agertu zitzaizkion laguntzeko prest, bidaia haren asmoaren berri jakin zuteneko; askoz zailagoa izan zen, ordea, ama konbentzitzea joaten uzteko. Goiz hartan bertan lortu zuen baietza eta elkarrekin bildu zituzten amamarentzako opariak; gero, ondoan zeukan lastozko otartxoan gorde zituzten.

—Amama ikustera noa, Said; nahi duzu zure partetik zerbait esatea? Benetan, zuk esadazu nahi duzuna eta neuk kontatuko diot.

Eguerdiko argi betea nagusi zen Ramala tristearen aldiri eta herrigunean. Han zegoen neskati jesarrita, eta haren alboan hondar-ekaitzetako haize zakar eta latza, duna ikaragarri bultza egiten ziena eta harkaitzak kiskali, landu, txikitu eta hauts fin bilakatzen zituena, harrotu eta kiribilka barreiatzen zuen hauts fina, gorri, arre eta beltza.

Nagituta, txistu luzea egin zuen haizeak, eta berehalako agurraren soinua zuen hasperen batek inguratu zuen Sanaa.

Neskatilak, isilik, sekretuak zituen amets, eta ekialdeko haizea penaturik zegoen ezin zuelako atsedean gehiagorik hartu. Berandutzen ari zitzaion; basamortua karabanatan zeharkatzen zuten gizon misterioetsuek neguan errexitaturiko ipuinak, kantuak eta otoitzak olatuen gainean uzteko garaiz heldu nahi bazuen, lehenbailehen abiatu beharko zuen itsasora heltzeko falta zituen kilometro luzeak ibiltzeko.

Atzean zuten maldatik behera abiatu aurretik, Sanaak otartxoa hartu eta ilea estaltzen zion hiyab gorria atondu ondoren, buruari jira egin zion azken aldiz Tenplu Sakratuaren kupulako urrezko dirdira begiradaz harrapatzeko, goxo eta amaigabea egin zitzaion une labur batez dirdira bizia egin baitzuen eguzkipean.

Azkenerako, neskatilak pausu biziz ekin zion bideari, amamaren herrixkara joan eta etxeratzeko agindua baino lehen bueltan egon ahal izateko segitu beharko zuen bidexkaren bila. Haizeak, marmarka, berarekin joateko keinua egin zuen, baina berehala oldartu zen eta zeruan gora egin zuen, ahapeka orro eginez, arin eta bizkor bidaia luzearen azken tarteari ekiteko.

Jose A. Tellaetxe Isusi

Orain kantu bidezko egokitzaipen nahiko berezia dakarkizuegu. Hemendik At
taldearen kanta entzungo duzue.



Txanogorritxo dut izena
amonaren etxera noa
amonatxoa ikustera

Esaion gabian amatxori
kontutxo txiki bat kontatzeko
hik behar dunana dala hori
ohian goxo-goxo loak hartzeko

Eta berak ziur, gustu handiz
ipuin kaka bat, kontatuko din
esaion gogor, eztunala nahi
ipuin zikin hori kontatzerik

Txanogorritxo dut izena
amonaren etxera noa
amonatxoa ikustera

Ez dun hire amatxok asmatzen
ez zaizkin ipuin hoiek gustatzen

aspergarriak dira benetan
ez daukan hori entzun beharrikan

Eskazan beldur gabe beste bat
nazkatuta hagola erabat
gustatzen zaiana eskaion, txo!
Gustatzen zaiguna, TXANOGORRITXO!!

Txanogorritxo dut izena
amonaren etxera noa
amonatxoa ikustera

Letra: www.musikazblai.com

Zuen ustez, zein da testuen helburua?

- Istorio bat kontatzea, entretenitzeko?
- Istorio bat kontatzea, irakaspenerako baliagarria izan dadin?

Talde handian bilduko zarete orain irakurritako eta entzundako bertsioez hitz egiteko. Zein dira dituzten berdintasunak eta ezberdintasunak? Denen artean komentatu.

Kultura nolakoa ipuinaren ezaugarriak halakoak. Ipuinen (pelikulen, nobelen...) egokitzapenak egin dira kulturaren arabera. Goiko testuetan nola egin da egokitzapen kulturala? Nola islatzen dira kulturaren ezaugarri behinenak?

Txanogorritxo basoz inguraturiko herrialdean kokatu ohi dugu. Baina zein litzateke, esaterako, Poloan edo Ekialdean edo Hego Amerikako oihanetan biziko litzatekeen Txanogorritxo ipuineko otsoa?

1. jarduera honen baitan orain kondairak izango ditugu aztergai. Baina badakizue zer alde duten ipuinek eta kondairek? Definizioa bilatu eta hemen idatzi:

Ipuinak:.....

Kondairak:.....

KONDAIRAK

Nafarroako kondairak dituzue ondoko hauek Bargotako aztiari buruzkoak.

(ITURRIA <http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/materi1/bargota/index.html>)

Prozedura

Lehendabizi, irakasleak irakurriko dizue "Johanes herriak ikusita" testua, eta horrela, kondairak irakurtzeko ahots-erritmo, tonu, intonazio egokia... zein den konturatuko zarete (erreparatu testuen puntuazio-markei). Ondoren, hiruko taldetan bilduta, elkarri irakurriko dizkiozue jarduera honetako kondairak. Irakurritakoan, koka itzazue kondairok beste garai batean, 2025. urtean, esate baterako. Nola kontatuko zenituzkete? Alda iezazkiezue zenbait pertsonaia edo objektu. Modu honetan, oso pasarte dibertigarriak idatziko dituzue. Aurrera!

Testuak zeun koadernoan idatzi eta denon aurrean irakurri.

JOHANES HERRIAK IKUSITA



Bargotako Aztiaren izena gaur egunera arte, industrializazio garaira arte heldu da. Jendeak beti izan ditu hizpide pertsonaia honen abenturak eta ekintzak kandela baten inguruan biltzen zenean, edota ezkaratzetan, edo sutondoan epelean, edo ukuiluen goxoa.

Zaharrenek haren esanak kontatzen dituzte hodeiak erakartzeko eta haien gainean ibiltzeko; eta Vianako akelarreetara joateagatik berandu heltzen zela elizkizunetara; eta urruneko beste tokiekin eta pertsonaiekin lotzen zuten alegiak.

Ahoz aho heldu zaizkigun kontakizun hauei arretaz begiratzuz gero berehala konturatuko gara aztia nolakoa zen bertakoentzat: pertsona argia, bihotz onekoa, asmo txarrekoekin oso kritikoa, petrikiloa eta

aztia. Muga aldeko jendeak oso oroimen goxoa du Johannesi buruz.

Atentzioa emateko modukoak dira Johannesek erabilitako trikimailuak Joan Otsoa salbatzeko. Joan Otsoa agramondarra zen eta Nafarroako Erresuma zaharraren independentziaren aldekoa zen. Johannes Erresumaren gainbegiradaren lekukoa izan zen.

Agian ez da errealitatetik oso urruti izanen Burgosko apezpikuaren eremuan zegoen Okako mendiei buruz egindako aipamena. Burgosen idatzi zuen lehen aipaturiko Guevarak bargotarrari buruz, eta mendi hauetan, agian, hobetu zituen petrikilo-ikasketak. Hil eta urte batzuk bereanduago, 1541ean, Kalagorriko inkisidoreek zigorra ezarri zieten lur hauetako hamabost pertsonari; aipatzekoa da haietako hamaika Johannes bezalako elizgizonak eta petrikiloak zirela.

JOAN OTSO

Bele-saldoa

Garai oso latzak ziren Nafarroan 1500. urte inguruan. Agramondarren eta beaumontarren mugimenduek bi zatitan zuten banatuta erresuma. Punicastroko gazteluko hondarretan zegoen ezkutatuta Joan Otsoa, kapitain agramondar bizar gorria. Goiz batean Azueloko Orratzeko tontorreraino igo zen, hura baitzen oso toki estrategikoa mandazainen bat erasotzeko.

Artzain batek abisua eman zion Torralbako Arkabuzari Kofradiari eta isilpean antolatu zuten haren atxilotzea. Harrapatzeko momentuan bele-saldo batek karraka egin zuen eta agramondarra hori entzutean bidexka eta sakan guztiak gurutzatu eta aztiaren etxean ezkutatu zen.




Esprontzedako artzaina eta katua

Esaten omen da Joan Otsoak ihes egiten ziola bideetako begiraleei Johanesen laguntzari esker. Johanesekin itxi omen zen ukenduen gela sekretuan eta animalia bihurtu omen zen. Biharamunean Esprontzedako artzain bat erotu beharrean ibili omen zen katu beltz handi baten atzean, ardi batzuk hil baitzizkion. Makilkada gogor bat eman zion eta gero bertan hiltzeko beste bat, baina katua ziztu bizian atera zen Kodes aldera.

Orduan ohartu zen bere aita zenak esandakoaz: "Aztiei eta haien kuttunei kolpe kopuru bakoitia eman behar zaie".

Kapa ikusezina

Batzuek kontatzen dutenez, behin bizargorria joan omen zen eliza eta udalaren artean dagoen ataritik Santa Luzia aldera kapa batean babesturik. Kapa hori Johanesena zen eta eramaten zuena ikusezin bihurtzen zuen.



2. jarduera. Bertsolaritza.



Bertsolaritza gure kulturaren ondare baliotsua da. Bertsoak entzuteko eta beraiekin jolasteko aukera izango duzue jarduera honetan.

Lehendabizi bertsoak entzungo dituzue, eta ondoren, bertsoekin jolasten arituko zarete.

Baliabideak:

www.bertsozale.com / (Jolasak) <http://www.bertso-eskolak.com/jolasak1.htm>

Prozedura

Taldean bildurik, jo ezazue www.bertsozale.com helbidera eta ezkerreko zutabearen bertsoak aukeraren gainean klikatu eta barnean *entzuteko bertsoak* hautatu. Bertsolaria, doinua, jardun mota...ezberdinak aukeratu. Entzun, disfrutatu eta ikasi! Bertsoak entzuten diharduzuen bitartean, bete ezazue honako txantiloia hau eta gero irakasleari eman.



Entzuteko bertsoak atalean:

Entzuteko bertsoak

Taldea: Taldekideak: Eguna:

Entzundako bertsoaren egilea	Doinua	Neurria	Gaia	Bestelako datu jakingarririk?	Zuen iritzia



Jarduera honetako bigarren atalarekin hasi aurretik, talde handian komentatu zein izan diren gehien gustatu zaizkizuen bertsoak. Hauta ezazue gustukoena eta azaldu gainontzekoei hautaketaren zergatia. Horretarako, koadroan zehaztutako datuez baliatu (bertsolaria nor, doinua, neurria, zein herritan edo zein emanalditan abestu zen... zuen iritzia...).

Jarduera honetako bigarren atalean zeuok bihurtuko zarete bertsolari, baina jolastu egingo duzue. Hasieran emaniko Interneteko helbidera jo berriro eta bertan ezkerreko zutabea jolasak aukeran klikatu eta horixe egin, jolastu!

Begira bertsoekin jolasteko zenbat aukera ezberdin duzuen! Denetan ibiltzeko aukera ez galdu, gero!

Hitzontzia	Bakoitzari berea
<u>Nahas-mahas</u>	<u>Nahas-mahas</u>
<u>Kopla doinuan</u>	<u>Bakarka</u>
<u>Zortziko txikian</u>	<u>Binaka</u>
<u>Zortziko handian</u>	<u>Txapelketak:</u>
<u>Hamarreko txikian</u>	<u>bakarka</u>
<u>Hamarreko handian</u>	<u>Txapelketak:</u>
<u>Neurri luzean</u>	<u>binaka</u>



Bertsoekin jolasteko atala:

Taldea: **Taldekideak:** **Eguna:**

Landutako bertso mota	Zuen iritzia	Nola jardun duzue? Emaita onak lortu dituzue?



3. jarduera. Erromantzeak, kantan eta eresiak.

Aspaldiko garaietan, gaur egun bezalaxe, jazotzen ziren gertaerak, hilketak, familia arteko liskarrak, maiteminduen arteko gorabeherak... Horietako batzuk baino ez zaizkigu heldu, ordea. Nola baina?

Garai hartako euskaldunak, beste baliabiderik ezean, gehienek ez baitzekiten idazten, zenbait generori buruzko daturik garrantzitsuenak kantuz, ahoz aho, erromantze izeneko poema narratiboen bidez, joan ziren zabaltzen. (*Ostadar*)

Hona hemen erromantze bat. Bi bertsio ematen dizkizuegu. Irakasleak jarriko dizkizue eta letra hemen duzue:

Bereterretxe (Erramun Martirikorena) **Bereterretxe** (Mikel Laboa)

letra

Haltzak eztu bihotzik,
ez gaztanberak ezürrik;
enian uste erraiten ziela Aitunen semek gezürrik.

Andozeko ibarra
ala zer ibar luzia!
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Berterretxek oheti
neskatuari eztiki:
- Abil eta so'gin ezan gizonik denez ageri.

Neskatuak berala
ikusi zian bezala:
hirur dozena bazabiltzala borta batetik bestera.

Berterretxek leihoti
jaun kuntiari goraintzi:
ehün behi bazereitzola bere zezena ondotik.

Jain kuntiak berala
traidore batek bezala:
- Berterretx, bortala, ütüliren hiz berala.

- Ama, indazüt atorra,
mentüraz sekulakua,
bizi denak ohit ükenen dü Bazko-gaiherdi-ondua.

Mari-Santzen lasterra
Bost-mendietan behera!
bi belañez herresta sartü da Lakarri Buztanobira.

-Buztanobi gaztia,
ene anaie maitia,
hitzaz hunik ezpalinbada, ene semia jua da!

- Arreba, hago ixilik,
ez, otoi, egin nigarririk;
hire semia bizi ba-da, Mauliala dun juanik.

**Mari-Santzen lasterra
jaon küntiaren bortala!
- Ai, ei eta, jaona, nun düzie ene seme galanta?**

**- Hik bahiena semerik
Berterretxez besterik?
Ezpeldoiko altin dün hilik; abil, eraikan bizirik.**

**Ezpeldoiko jentia
ala sentimentü gabiak!
Hila hain hüllan üken eta deüs ere etzakienak!**

**Ezpeldoiko alaba
Margarita deitzen dena;
Berterretxen odoletatik ahürkaz biltzen ari da.**

**Ezpeldoiko bukata
ala bukata ederra!
Berterretxen atorretarik hirur dozena ümen da.**

Jarduera honetan, entzun duzuen erromantzeaz gain abesti herrikoiak entzungo dituzue, koplak, hain zuzen ere. Gero, gaiak aldatuko dituzue eta beste abesti batzuk sortuko dituzue!

Prozedura

Taldeka bilduko zarete. Lehendabizi, euskal kantak entzun eta letra irakurtzeko baino ez dizuegu eskatuko. Ondoren, proposatzen dizkizuegun abestietako bat hautatuko duzue eta letra aldatzen saiatuko zarete, baina gaia aldaturik.

Abestiekin batera letra jarri dizuegu, kantak entzun ahala irakurri edo abestu ahal izateko. Fotokopiak atera eta saiatu letra aldatzen. Ea, gutxienez, lau ahapaldi egiten dituzuen!

Besteak beste honako hauek izan litezke zuen kopletan aipatu ditzakezuen gaiak: ahozko literatura, jendaurrean aritzea, eskola, ikasgelako lagunak... edo irakaslearekin adostu ondoren, zuen gustukoa izan litekeen beste edozein gai.

Ea zer nolako kantak ateratzen zaizkizuen! Letrak idatzi eta ikasgelako horman jarri ikusgai.

Kantak



(Iturria: Hiru truku "zazpi nobio")

1. Neska soldadua (letra)
2. Izar ederra- (letra)

3. Amaren- (letra)
4. Eguzkia- (letra)



Eresiak eta gudu kantuak

Badakizue zer diren eresiak? Hileta-kantuak dira, horiek ere kanta zaharrak, ahoz aho transmititu izan direnak.

XV. mendean, profazadoreak (plazaz plaza eta herriz herri ibiltzen ziren emakume abeslariak) eta erostagileak (gudu-kantuak eta eresiak egiten zituzten kantariak) izan ziren ahozkotasunaren enbaxadore nagusiak.

Sarean, Interneten bidez irakur ditzakegu eresi eta kantu zahar horiek: honako helbide honetan: <http://klasikoak.armiarma.com/herri.htm>

4. jarduera. Herri-antzerkia. Pastoralak eta maskaradak.

Antzinako tradizioko antzerkia izango dugu aztergai jarduera honetan. Horretarako, maskaradei buruzko audioa entzun eta maskaradei eta pastoraiei lotutako bi bideo txatal ikusiko dituzue.

Informazioa arreta handiz ikusi eta entzungo duzue; izan ere, bideoak zubereraz daude, beraz, zail samarra gerta liteke ondo ulertzea. Baina badakigu, hala ere, lortu lortuko duzuela.

Prozedura

Taldeka burutuko duzue jarduera hau. Lehendabizi, irakurri proposatzen dizuegun informazioa biltzeko taula, zer nolako datuei erreparatu behar diezuen jakiteko. Ondoren, taula bete, audioak eta bideoek ematen duten informazioari erreparaturik. Arretaz jokatu beharko duzue, lehen esan bezala, bideoak zubereraz baitaude. Dena den, taula osatzen laguntzeko beste informazio iturri hauetara ere jo dezakezue:

http://www.hiru.com/euskal_literatura/euskal_literatura_00150.html

<http://www1.euskadi.net/Harluxet/hiztegia.asp?sarrera=pastoral> (informazioa labur-labur)

http://www.juandegaray.org.ar/fvajg/docs/Teatro_Vasco (GAZTELANIAZ)

Baliabideak:

Audioa : [maskaradak-entzumena](#)

Bideoak: [Pastorala. Santa Engrazi](#) (<http://www.itelebista.com/eu/bideo/274>)

[Maskarada. Mauleko maskarada](#) (<http://www.itelebista.com/eu/bideo/1168>)



Iturria: Sū Azia -
Maskaradak




DATUAK BILTZEKO TXANTILOIA

EZAUGARRIAK	MASKARADAK	PASTORALAK
Noiz antzezten dira?		
Non?		
Nolako jaiak dira?		
Europar bada besterik?		
Zer erakusten du?		
Zein tokitan antzeztu ohi dira?		
Pertsonaiak		
Ezaugarriak		
Atalak		
Sinbologia		
Janzkera		
Zein da maskaradako pertsonaiarik garrantzitsuena?		

5. jarduera. Esaera zaharrak, atsotitzak.

Gotzon Garatek dioenez "Folklore eta etnologia. Herriaren antzinateko uste, jokamolde eta tradizioak. Gaitzak sendatzeko otoitzak, sorginkeriak eta aztikeriak, erlijioari buruzko iritziak eta jaiak eta gure arbasoek kontatzen zituzten ipuinak. Mitologiaren aztarnak eta naturalezari buruzko siniskerak ere iradokiak aurkitzen ditugu esaera zaharretan" ([27173 Atsotitzak - Refranes - Proverbs - Probervia](#)) Errefrau, atsotitz edo esaera zaharretan Herriaren jakinduria labur-labur adierazia biltzen dela esan daiteke.



Prozedura


Zer egingo duzuen? Ikasi, ikusi eta jolastu. Jakintza ikastolako ikasleek Maite Goñi irakaslearen gidaritzapean sortutako ariketak dira jarduera honetan proposatzen dizkizuegunak.

Bikoteka bilduko zarete eta atsotitzak lantzeko aukeretan murgilduko. Euskal atsotitzak, gure Herriak mendeetan zehar bildutako eta laburbildutako jakinduria aztertuko duzue.

Ondoren, gehien gustatu zaizkizuen hamar atsotitzen bildumatxoa idatziko duzue. (Ahal baduzue, zuen hitzak erabiliz, esanahia adierazi)

Klikatu hemen eta hasi! [euskaljakintza : atsotitzak](#)
Atsotitzei buruzko informazio gehiago:

<http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm>



Gehien gustatu zaizkizuen atsotitzak:

	ATSOTITZAK	ESANAHIA
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		



Iritsi gara sekuentziaren bukaerara!

Lehenengo lan-sekuentzia honetako bost jardueretan zehar ahozko euskal literaturarekin aritu zarete. Entzun, ikusi, irakurri, jolastu egin duzue; horretaz gain, koplak eta abestiak pittin bat eraldatu dituzue... Egin dituzuen jarduera eta arikeretan oinarriturik, sailkapen moduko bat egitea proposatzen dizuegu:

Ahozko azalpena egingo duzuen taldekideok bildu eta genero eta azpigenero bakoitzari 1etik 5erako puntuazioa jarriko diozue: gehien gustatu zaizuenari 5 eta gutxien gustatu zaizuenari, berriz, 1. Gero, talde handian bilduta, ahoz azalduko duzue zein den zuen balorazioa. Interesgarria izan liteke, era berean, zergatia adieraztea.

Azkenik, irakasleak adieraziko ditu ikastaldekoen emaitzak, zuen gelan zein izan den generorik gustukoena jakiteko.

PUNTUAZIOA (1etik 5era)	ZER IZAN DA INTERESGARRIENA?
Bertsolaritza	
Kondairak	
Ipuinak	
Pastoralak eta maskaradak	
Abestiak, koplak eta baladak	
Esaera zaharrak, atsotitzak	

2. LAN-SEKUENTZIA AZALPENERAKO EDUKIA LANTZEN

Ahozko euskal literaturarekin aritu zarete aurreko jardueretan. Oraingoan unitate honen helburua ahozko euskal literaturari buruzko azalpena ematea denez, edukia antolatzen hasiko zarete eta horretarako, komunikazio egoeraren ezaugarriei erreparaturik, prozesua lantzen hasiko zarete. Horrenbestez, lan sekuentzia honetan azalpenaren eskema eta jendaurrean azalduko duzuenaren zirriborroa gauzatuko dituzue, koherentzia eta kohesioa lantzen dituzuelarik.

6. jarduera. Datuak biltzen eta hautatzen. Azalpenaren helburuak zehazten.

Azalpenerako behar dituzuen datuak bildu eta idatziko dituzue jarduera honetan negoziazioan (O jarduerako fitxan) zehaztutako datuak abiapuntu izanik.

Prozedura

Jo ezazue O jarduerara eta bertako fitxa berreskuratu. Taldeka bildu eta informazioa jasoko duzue, O jarduera horretako fitxan (Komunikazio egoera zehaztekoan) adierazitako datuak kontuan harturik. Bilketa modu egokian egiteko txantiloak hau erabiliko duzue; izan ere, informazioa topatzeko zenbait urrats dituzue bertan. Informazioa bildu ondoren, beheko koadroa bete.

INFORMAZIOA BILTZEKO PROZEDURA

Idatzi beheko koadroan ZER JAKIN BEHAR DUZUEN eta, zehazki, zeri BURUZKO INFORMAZIOA BILDU BEHAR DUZUEN.

Saiatu informazio iturri ezberdinetara jotzen:

- Liburutegiko KATALOGO OROKORRA kontsultatu, lanaren gaiari lotzen zaizkion liburuak bilatu ondoren:
Aukeratu egokienak iruditzen zaizkizuen bizpahiru izenburu
Berriz aztertu aurkibidea eta erabaki hautatutakoak baliagarriak diren ala ez.
Erabilgarririk topatuz gero, bete beheko taula
- Liburutegiko TESTU-LIBURUEN atala kontsulta dezakezue:
Hautatu gizarte gaiei loturikoak
Berriz aztertu aurkibidea, baliagarriak izango zaizkizuenak hautatu eta idatzi

beheko taulan.

- **ENTZIKLOPEDIA TEMATIKOAK** ere azter ditzakezue.
Unitatean proposatzen diren **WEB HELBIDEETARA** jo:
Hautatu bizpahiru orri
Aztertu edukia baliagarria zaizuen ala ez erabakitzeko
Baliagarria bada, informazioa idatzi beheko taulan
- **WEB HELBIDEETARA** jo:
Honako helbide hauetan topa dezakezue beharko duzuen informazioa
<http://www.idazleak.org/historia/historia/sarrera.php>
http://www.hiru.com/euskal_literatura
<http://www.basqueliterature.com/basque/historia/ahozkoa/baladak>
<http://klasikoak.armiarma.com/herri.htm>
[Euskal ahozko literatura - Wikipedia, entziklopedia askea.](#)
<http://www.bertsozale.com/liburua/euskera/sarrera/sarrera1.htm>




ZER JAKIN NAHI DUGU?	
ZERI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA JASO BEHAR DUGU?	
INFORMAZIO ITURRIAK	ZER INFORMAZIO DAGO BERTAN?

7. jarduera. Aukeratutako informazioa antolatzen.

Orain aurreko jardueran bildu duzuen informazioa eskema bidez adieraziko duzue. Ondoren, jendaurrean adieraziko duzuenaren lehenengo zirriborroa idatziko duzue. Ez ahaztu hasierako fitxan (O Jarduera, Komunikazio egoera zehaztekoa) adierazitakora egokitu beharko duzuela azalduko duzuen edukia; horrenbestez, hartzaileen ezagutza maila, erabilpen-eremua, komunikazio asmoa, denbora... kontuan hartu beharko dituzue, azalpenaren eskema burutzeko. Bestalde, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ere ondo bereizi beharko dituzue.


Prozedura

Taldeka bildu eta hautatutako informazioari erreparatu ondoren, egizue azalduko duzuen gaiaren eskema. Baliagarria izan dakizueke honako txantilo honetan ematen dizkizuegun argibideen arabera gorpuztea. Bertan, era berean, zehaztu dezakezue zein informazio iturritatik jaso dituzuen datuak.



Eskema:

Azalpenak hiru atal izan ohi ditu:



Eskema zehazturik, zirriborria idatziko duzue orain.

Zirriborria idazten laguntzeko kontrol-zerrenda prestatu dizuegu. Hala ere, lehenengo zirriborria denez, zuzenketa ugari egin behar izango duzue. Baina lan-sekuentzia honetan proposatzen zaizkizuen zenbait ariketa burututakoan, azalpenaren edukiaren koherentzia eta kohesioa lantzeko, zirriborro hori pixkanaka-pixkanaka hobetu egingo duzue.

Azalpen testuaren zirriborroa idazteko kontrol-zerrenda

ZIRRIBORROA

Zirriborroa idazten hasi aurretik

- Bildutako ideiak birpasatu
- Garrantzitsuak eta esanguratsuak baino ez hautatu
- Ez errepikatu.

Zirriborroa idazteko

- Ideiak antolatu gidoiaren, eskemaren arabera
- Ideiak paragrafoka antolatu, Ideia nagusi bakoitzeko paragrafo bat.
- Paragrafoen hasieran saiatu testu antolatzaile egokiak jartzen
- Paragrafoak aurrekoarekin eta ondokoarekin modu koherentean lotu
- Zuen hitzak erabili
- Ez eman iritzirik

Zirriborroa idatzi ondoren, Egiaztatu:

- Ondo ulertzen da?
- Hautatutako gaiaren hariari ondo eusten dio?
- Gaia hondo aipatzen da eta ondo garatuta ageri da?
- Koherentziarik badu?
- Interesagarria da?

8. jarduera. Edukien koherentzia lantzen.

Azalduko duzuenaren bizkarrezurra zehaztu eta zirriborroa idatzi duzue. Orain, informazio hori ondo antolatu duzuen egiaztatu beharko duzue. Dakizuenez, edukiak bere barneko elementuen arteko lotura logikoa izan behar du. Adierazi nahi dituzuen ideia edo ideiak pentsatu, hautatu, egituratu eta antolatu egin beharko dituzue gutxienezko koherentzia batekin. Horri esker da idatzi bat testu. Koherentzia hori gabe, aldiz, hitz- eta esaldi multzo bat izango da edo informazio-nahasmendua, baina ez testu. Idatzi koherentea testu da, eta koherente ez dena, berriz, ez.

http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin98_107/Jakin98_107_031.pdf

Beraz, testuaren edukiak atalen arteko lotura logikoa, hau da, koherentzia izan behar du eta hori lantzeko jarduera hau proposatzen dizuegu .

Azalpen testuak gauzatzean edukiari koherentzia eta lotura emateko egitura mota ezberdinak dituzue aukeran. Mailaz maila, 1.DBHtik hasita, bai euskaraz bai gaztelaniaz azalpen testuek izan ditzaketen barne antolaketa ezberdinak landu eta landuko dituzue. 2.DBHko proiektu honetan azalpen testuen deskribapen egitura proposatzen dizuegu bai gaztelanian bai euskaraz. Bi bietan azalpen testuak dira landuko dituzuenak, baina genero ezberdinen bidez.

Deskribapen egiturari eusten dion testua proposatzen dizuegu jarduera honetan. Ikus dezakezuenetz, esaldi antolatzaileak edo azpigiak zehazten dituzten atalak ditu, baina testuaren ataletako paragrafoak nahasturik daude. Ea gauza zareten barne antolaketa, barne koherentzia, berregituratzeko.


Prozedura

Taldeka bilduta, ordena itzazue nahasirik eman dizkizuegun paragrafoak. Testuaren koherentzia, lotura logikoa, zein den antzeman behar duzue.

Legearekin konplitz koplaka

Iturria: www.ikasbil.net

Santa Ageda bezperako ohiturari buruzko erreportaje txikia duzue honako hau. Ohituraren jatorria, zertan gauzatzen den eta Ageda deunaren historia.



Santa Ageda. Zurbarán

Ohituraren jatorria

Esaldi antolatzailea

Euskalduntasuna baserri girotik haratago eramateko irrikak hirigune urbano eta modernoetara ere eraman du azken urteotan usadio hori. Kasu guztietan xumea da, hala ere, jaiaren izaera. Kopla zaharrak kantatzen dituen abesbatza —lurraren kontra darabiltzat kolpeka makila handiak—, bertsoak inprobisatzen dituen bertsolaria eta musikari bat edo bi. Besterik ez da behar Santa Ageda bezperako legea konplitzeko.

Bizkaiko, Gipuzkoako, Lapurdiko eta Nafarroako nekazal giro euskaldunetan, ohitura zaharra da gaurko egunez etxez etxe kantari ibiltzea. Eta arrunt errotuta dago kantatu ostean eskean egitea ere. Dirua eskatzen da batzuetan, edo eta barrena asetzeko janaria eta edaria beste askotan

Euskal Herriko hainbat txokotan ohitura errotua da gaurko egunez kopla kantari eskean irtetea.

Hirietan zein nekazal guneeetan itxura arrunt ezberdina du usadioak; jaiaren muina igualtsua da, ordea, toki guztietan.

Makila handi-handiak esku artean, iraganetik jasoriko kopla zaharrak ezpainetan eta eskean jarduteko hitz dotoreak airean... Santa Ageda bezpera.

Kopla kantari

Esaldi antolatzailea

Etnologo batzuek gogora ekarri dutenez, esaterako, garai batean halako egunez Nafarroako hainbat tokitan tximiniak garbitu ohi zituzten. Nafarroako beste zenbait udalerritan, berriz, ohikoa zen zenbait herritarrek — emakume zein gizasemeek — elizako kanpaiak jotzea.

Etnologoek arabera nekazari giroko negu gordinetan sorturiko ospakizuna da Santa Ageda bezperakoa, eta zenbaitzuk inauteriekin lotzen dute. Makila handien hotsak zein Santa Agedaren ohorez egiten diren eta egin izan ohi diren hainbat ospakizunek, mundu ikuskera berezkoaren aztarnak gordetzen dituztela diote.

«Santa Ageda bezpera dugu. Euskal Herriko eguna, etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua duguna...». Toki bakoitzeko aldaerak aldaera kopla horrekin bertarutzen dira aterik ate Santa eskean ari direnak.

Martiri sufritua

Esaldi antolatzailea

Gaurko egunez kantatzen diren kopletan haren azken arnasaren atariko torturak gordin-gordin kontatzen dira. «Lehendabizi azotatu eta kendu zizkioten bularrak...», «Istanpatian estali zion gorputz guztia odolak»... Ohikoak izaten dira horrelako koplak, bai eta santuarekin zerikusirik izan gabe, herriko gorabeheren berri ematen dutenak zein eskea egitera mugatzen direnak ere.

Hala ere, itxura batean nekez argitu daiteke zergatik den Santa Ageda —«Agate deuna» hainbat kopletan— hain garrantzitsua Euskal Herrian. Izan ere, urruti jaio zen: Sizilian, 230. urtean. Kondairaren arabera kristau sutsua izaki, nahiago izan zuen martiri bihurtu, gizon fedegabe baten ezkontza proposamenari baiezkota esatea baino. Diotenez, sufrimenduz beteriko azkena izan zuen, bularrak moztu baitzizkioten.

Garai bateko gizartearen ondare ia desagertua dira kontu horiek.

Etnologoek aztergaia. Koplak kalean daude oraindik ere, ordea. Bizirik.

Etnologo zenbaitzuk diotenez, koplak kantatzetik haratagokoak izan dira Euskal Herrian Santa Agedaren inguruan sortu diren hainbat sinesmen. Hala, garai batean nekazari giroan Agate Deuna mundura umeak ekarri berri zituzten emakumeen zaindaria izaten zela diote, eta ume jaio berriari esnerik eman ezin zioten amek santa horri eskatzen ziotela laguntza.

Zorion etxe hontako denoi
Oles egitera gatoz
Aterik ate ohitura zaharra
Aurten berritzeko asmoz

Ez gaude oso aberats diruz
Ezta ere oinetakoz
Baina ezta sano gabiltza
Ta kanta nahi dugu gogoz

Santa Ageda bezpera dogu
Euskal Herriko eguna
Etxe guztiak kantuz pozteko
Aukeratu doguna

Santa maitea gaur hartu dogu
Gure bideko laguna
Haren laguntzaz bete gentzake
Egun hontako jarduna

Arantxa Iraola 2000/02/04

Jendaurrean egin behar duzuen azalpenari begira, beraz, egitura deskriptiboa proposatzen dizuegu. Antolaketa era horri egokitzen zaio zirriborroan duzuen azalpena? Hala ez bada, hasi bada, hitz antolatzaileak jartzen, informazioa ahalik eta modurik deskriptiboenean eta argienez azaltzeko eran.

9. jarduera. Informazioa ondo kohesionatuta azaltzeko baliabideak lantzen.

Koherentzia zer den ikusi ondoren, jarduera honetan informazioa argi, zehatz eta ideiak bata bestearekin era egokian lotzeko eta adierazteko baliabideak aztertuko dituzue. Kohesioa, hain zuzen ere.

Testu bat irakurtzean, bere osotasunean ondo ulertzeko esaldiek adierazten duten ideien arteko nolabaiteko lotura egon ohi da. Ez dira esaldi solteak izaten, esaldi bakoitzak aurretiaz esan denarekin zerikusia izan beharko du. Esaldi arteko lotura horri kohesioa deitu ohi zaio eta beharrezkoa izaten da hartzaileak testua ahozkoa zein idatzizkoa izan inongo arazorik gabe ulertuko badu.

Jarduera honek zenbait ariketa ditu.



9.1. Ariketa.

Ariketa honetan testu antolatzaile eta lokailurik erabilienak identifikatuko dituzue.

Prozedura

Ondoko taulan ideiak elkarrekin lotuta adierazteko testu antolatzaileak, lokailuak eta esapideak dituzue. Begiratu arretaz.

Hori egin ondoren, irrati saio labur bat entzungo duzue atalka. Irakasleak atal bakoitza behin baino gehiagotan jarriko dizue eta entzuten ari zareten bitartean, igorleak erabiltzen dituen antolatzaileak markatuko dituzue taula orokor horretan.

Hiru pertsonekin elkarriketa. Bi ikastetxetako irakasle dira eta gazteen artean literatura zaletasuna eta idazteko grina pizten saiatzen dira. Bestea, ordea, saria irabazi duen neska gazte baten ama da. Idazle sena pizteaz eta sariketak horretan izan dezakeen eraginaz mintzo dira. 



Gazteak eta literatura

Hasierakoak

Hasteko,
Lehenengo
eta behin,
Ezer baino
lehen,
Ezeri ekin
baino lehen,
Lehen-
lehenik,
...z hitz egin
behar
dudalarik,
Sarrera gisa
esango dugu
...

Bukaerakoak

eta
ondorioak
Amaitzeko, /
Bukatzeko,
Amaiera
bezala,
Aurreko
guztia
(Iaburbilduz,)
Ondorio gisa,
Amai
dezagun
esanez (e)la
Azkenik,
zera:...
Laburbilduz,
Hitz gutxitan
(esateko):...
Horrenbestez,
zenbait
ondorio atera
daitezke: 1...
2...

Jarraipena

(Honen)
ondorioz,
Horren
haritik,
Hari beretik,
Era berean,
Bigarrenik,
Gero,
Honen ostean,
Hau (ikusi)
eta gero,

Arrazoitzeko

Izan ere,
Hori dela eta,
Horrela, ba,
Indartzeko
Aipatu
bezala,
Aipatu
dugunez,
Berriro
esanda,
Beste era
batera
esanda,
Zehatzago
esanda,
Hobeto
esanda,
(Gorago)
esan bezala,
Are gehiago,
Gainera,
Kontuan
hartu,
gainera,

Adibideak

iartzeko
Adibidez,
Esate
baterako,
Hau da,
Ikus,
adibidez, -ren
kasua: ...
Kasu (bat
aipatzeko ...)
Hori
erakusteko,
aipa
dezagun...
,alegia
Demagun

Onarpena **(ziurtasuna)**

Ez dago
dudarik...
Seguruenik
Ziur aski
Zer esanik ez
Egia da... -(e)la
Dudarik gabe
Zalantzarik
gabe
Argi dago (e)la
Bistan da (e)la
Beharrezkoa da
garbi uztea
..., noski / ...,
jakina

Indartzeko

Hain zuzen
ere...
...hain zuzen
ere...
Batez ere
Dakizuenez

Kontrakotasuna

Baina
Dena dela, / Dena den,
Hala (eta guztiz) ere,
Edozein modutan ere,
Edonola ere,
Nolanahi ere,
Esanak esan,
Hori(ek) gorabehera,
..., ordea,
..., berriz,
..., aldiz,

Idea bat aurkezteko

-ri dagokionez,
... dela eta, komeni da
esatea ...
Oro har,

Ordena

Alde batetik, ...
Bestetik,
Ildo beretik,
Lehenik.../ bigarrenik,
...
(Arestian) esan bezala,
(Gorago) esan bezala,
Lehenengo hariari
jarraituz,
Gauzak horrela,

Aipamenak; **iritziak** **emateko**

(r)en
arabera,
Askoren /
Batzuen
iritziz
... (r)en
ustez,
(r)en
esanean,
Diotenez,
Antza denez,
Dirudienez,
Badirudi... -
(e)la
...(e)la dirudi
Dakigunez,
Irakurri
dugunez,
Idea
berriak
txertatzeko
Ez hori
bakarrik,
Bestalde /
Beste aldetik
Baita ... ere
Baina,
bestetik,
... ere bai
ez ezik ... ere
Egia da, hala
ere,
Era berean,
Halaber,
(Horrez)
gain,
Horiek
horrela,
Bai... bai
Ez... ez

Talde handian bilduta irakaslearekin zuzenduko duzue. Eta txantiloia bete.

Audioan entzundako antolatzaileak:

9.2. Ariketa.

Aurreko ariketako taulan adierazi ditugun **antolatzaileak eta lokailuak erabiliko** dituzue ariketa honetan.

Prozedura

Honako honetan bakarka arituko zarete. Bi testu labur dituzue hemen, biak literaturari lotuak. Saiatu goiko ariketan markatu dituzuen testu antolatzaile eta lokailuen bidez ideiak elkarrekin lotzen.

Lehenengo ariketan, geuk markatuko dizkizuegu aldatu edo txertatu litezkeen lokailuak eta esapideak. Bigarrenengan, berriz, zuek erabakiko duzue zein diren aldatu edota txertatuko dituzuen kohesio emailerik egokienak.

Zuzenketa talde handian bilduta egingo duzue.

1. testua

Ahozko literatura bizi baten oinarria izan da. Honen lekuko, (adibidea jartzeko) gaur egun indarrean dugun bertsolaritza.

Hamaseigarren mende hondarrean, Espainiako Erregearen historialaria zen Esteban de Garibayek ikerlan handiak egin zituen euskal idazki zatitxo, olerki, ipuin eta erran-zaharrak biltzeko. Halaber, Arnaud d'Oyhenart, xiberotar olerkari-historialariak, 1657an plazaratu zuen liburuak, bi zati ditu : "Atsotitzak eta Oihenarten gaztaroa neurtitzetan".

Horrek frogatzen du, beraz, Europako Pizkundea baino lehen, Euskal Herrian ahoko literaturaren ohitura bazegoela, hain segur, bertsolaritzan oinarritzen zena.

Azken hogeita hamar urte hauetan, (ideiak berriak txertatzeko) beste kultura-adierazpen batzuk ere funtzio garrantzitsu bat bete dute euskararen birjabetze prozesuan, ____ (adibidea jartzeko), horietan kantua eta antzerkia.

Supazterreko distira beste argi mota batzuek aldatu badute ere, ipuinak, beti, gu guztien gogo-bihotzak hunkitzen ditu. Koldo Amestoy eta Pello Añorga ipuin kontalari profesionalek, ezin hobeki badakite hitza indarrean ezarri jendea xoratzen...



2. testua:

Herri-kontaketa

Ahozko literaturan, oro har, musikaz eta erritmoaz egindako literatura nagusitzen zen, alegia: baladak, koplak, bertsolaritza... Hala ere, herri-kontaketa ere bazegoen, nahiz eta hainbesteko nagusitasunik ez izan.

Hori dela eta, orain arte aipatutakoak ez bezala, herri-kontaketa galdu egin zen, baina, betiko desagertu aurretik, hainbat kontaketa labur eta luze gorde ziren. Horien arabera, honako ondorioak atera dituzte:

Kontaketa laburrak: kontaketa horiek mundu zabala islatzen dute, eta Euskal Herritik kanpo ditu adarrak. Bi motatako gaiak bereizten dira: folklore-gaiak eta denbora pasatzekoak. Folklorearen jorratzen zutenak irakaskuntzari esker aztertu izan dira. Bigarren motakoek entretenitzea zuten helburu. Oro har, adineko jendeak gazteei kontatutako istorioak ziren. Normalean ahozko istorio horiek ahoz aho kontatzen ziren, eta hori zela-eta, urteetan zehar irauten zuten.

Kontaketa luzeak: ahozko estiloa nagusitzen da eta, oro har, egileak bizi izandako egoerak kontatzen dira. Hiru motatakoak daude: nobela, biografia eta ohiturak. Zoritzarrez, ez zaie ez balio zientifikorik eman ez beren alderdi literarioa aitortu.

9.3. Ariketa: testu paraleloa.

Orain zuen azalpenerako zirriborroa erabiliko duzue eta aurreko jarduerako testu antolatzaileak eta lokailuak erabiliz ideien arteko loturak gauzatuko dituzue, hori bail esanahia aldatu gabe, jakina.

Prozedura

Jendaurreko azalpena egingo duzuen taldekideok bildu eta bakoitzak bere koadernoan, bakarka, ondoko testu antolatzaile eta lokailu batzuk txertatuko ditu zirriborroan. Proposatzen dizkizuegun testu antolatzaile eta lokailu hauez gain, beste batzuk ere (ikus koadroan) erabil ditzakezue. Ideiak lotzeko lokailu ezberdinak erabiltzen trebatu zaitezten nahi dugu.

Eduki bera baina ideien arteko loturak gauzatzeko kohesio emaila ezberdinak dituzten testu paraleloak sortuko dira. Elkarrekin hitz egin eta taldekideon artean erabaki zein den ideiak modurik egokienean kohesionatuta dituen zirriborroa; izan ere, hori izango da jendaurrean erabiliko duzuen.

Gaia sartzeko : Lehen-lehenik, ...z hitz egin behar dudalarik, sarrera gisa esango dugu ...

Ordena markatzeko: Alde batetik, ... Bestetik, Ildo beretik, lehenik.../ bigarrenik, ...

Puntu berberari ekiten jarraitzeko: Are gehiago, Aipatu bezala, Aipatu dugunez, Berririo esanda

Adibideak txertatzeko: Esate baterako, Hori erakusteko, aipa dezagun...

Laburbiltzeko edota ondorioztatzeko: Ondorio gisa, Amai dezagun esanez (e)la, Horrenbestez, zenbait ondorio atera daitezke: 1... 2...

Talde handian bilduta bozemaileak, lehendabizi ozenki irakurriko du jatorrizko testuaren txatal bat. Ondoren, lokailuak eta testu antolatzaileak idatzi ondoren sortutako testu berria irakurriko du.

9.4. Ariket.

Kohesioaz ari garelarik, bestalde, askotan gertatzen da testuan lehendik agertua den elementu bati, hurrengo esaldian edo paragrafoan, berriro erreferentzia edo aipamena egitea. Aipamen edo erreferentzia horrexek ematen dio, horretara, lotura eta kohesioa testuari. Baina ez zaizue askotan gertatzen mezua ondo ulertzeko hitz bera behin baino gehiagotan aipatzen duzuela? Horrek testua astun bihurtzen du, aspergarri erabat, haur batek idatzia balego bezala.

Alferreko errepikapenak saihesteko baliabideez arituko gara oraingo honetan. Baliabideetako bat errepikatutako hitzak antzeko esanahia duten hitzez ordezkatzeari da. Horri ordezkapen lexikala deritzo.

Hona hemen testu liburu batean oinarrituta atera dugun adibidea. Irakurri.

San Demetriok monasterio bat eraiki nahi zuen eta erregeari horretarako terrenoa eskatu eta erregeak terreno zabala eskaini zion. Egun batean astoz zeharka zezakeen terrenoa nahikoa zuela esan zion San Demetriok erregeari.

Terrenoa neurtzeko jarri zen San Demetrio astoaren gainean, baina astoa egun horretan ondoezik zegoen eta astoak pauso gutxi eman ahal izan zituen eta San Demetriok ez zuen lortu bere monasterioa egiteko adina terreno.

Iturria: Ostadar Euskal hizkuntza eta literatura DBH lehen zikloa

Erabat astuna da kontakizuna, laburra izan arren ezta? Izan ere, alferreko errepikapen ugari daude bertan. Azpimarratu errepikaturik ageri diren hitzak.

Orain, irakurri bigarren testua eta erreparatu egindako aldaketari.

San Demetriok monasterio bat eraiki nahi zuen eta erregeari horretarako terrenoa eskatu eta subiranoak lur eremu zabala eskaini zion. Egun batean astoz zeharka zezakeen lur zatia nahikoa zuela esan zion santuak jaunari.

Lurzorua neurtzeko jarri zen Demetrio animaliairene gainean, baina aberea egun horretan ondoezik zegoen eta gizajoak pauso gutxi eman ahal izan zituen, eta gure gizonak ez zuen lortu bere monastegia egiteko adina lur.

Zer egin dugu? Denak sinonimoak dira ala antzeko esanahia duten hitzak erabili ditugu? Hiperonimoak eta hiponimoak erabili ditugu. Baina badakizue zer diren? Testutxoko adibideetan oinarrituta, saiatu denon artean esanahia zehazten.

Ereduan egin dugunak ez du zaila ematen, ezta? Erabili dugun baliabidea, ordezkapen lexikala, zuen azalpenerako erabat erabilgarria eta beharrezkoa denez, orain praktikatu egingo duzue.

Prozedura

Hamabi urteko mutiko batek idatzitako testua duzue ondokoa. Arretaz irakurri eta zuen ustez alferrik errepikatuta dauden hitzak azpimarratu. Ondoren, taldeka bildu eta saiatu alferreko errepikapenak saihesten sinonimo, hiponimo edo hiperonimoak erabiliz...

Iturria: http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/materi3/idaz_ebal/probak/3.zikloa-D/Sanferminak%20ereduak/2.-%20trebea.pdf





1994-ko Ekainaren 15-a, ostelak

..... Juan, mutea:

..... Zer moduz zauden? Ni oso ondu nago.

..... Laster San Ferminak izango dira Irúñan.

..... Irúñan San Ferminak dauka hiria da.

..... Oso handia da eta nafarroan dago.

..... Etxe da eskola, aste, ditu, baita eliza berri.

..... ee.

..... San Ferminak Nafarroako festarik garrantzitsuenak

bat da. Atzerriak asko etorzen dira eta

herregatik ez dago San Ferminetan kale

bat hutsik. Irúñan 200.000 pertsona daude.

berriak San Ferminetan 1.000.000 atzerriar

etorzen direla esaten (dute) da.

.....

..... San Ferminetan lehenengo egunak

jendea txupinazoa jaten da txupinazoa

(koko) kokete batzuk botatzen dira (beranduak)

peetsorak... bat... autatzen... dute... Kehotek... lotatzen.
Memento... hastatik... aurrera... San Ferminean...
hasten... dira... Goiz... labaitzen... ~~entziera~~ entziera...
bat... dago... entziera... jendak... jendearen... atzetik...
josten... dira...

San Ferminean... guzua... asko... bada...
Dendetan... San Fermineko... asupa... jartzen... dute...
Asupa... (6) txuria... da... baino... gerrak... eta...
supia... gorrak... dira... Barrakak... badaude... eta...
jende... askok... eta... askok... barraketara... josten... diren...

Juan, etortzen... zaren... lehenengo... egunetik...
guzua... asho... egingo... ditugu... elkarrekin...
Barraketara... joango... gara... eta... guzuek...
iv... artifizialak... joango... gara... Ose... ongi...
jusak... dugu...

Epera... dit... zu... laster... etortzen...

Jon

9.5. Ariketa: puntuazio markak.



Kohesioaz ari garelarik, puntuazio-markak erabiltzea beharrezko gertatzen da. Bestela, perpaus edo esaldi askok ez lukete zentzurik izango, edota esan nahi dena behar bezala ulertzea oso zaila izango litzateke.

Entzun, lehendabizi, honako testu hau : (iturria: www.ikasbil.net)

Irratiko iragarki honetan testu bat irakurtzen dute oso azkar eta inolako etenik gabe. Honela puntuazioa zein beharrezkoa den adierazteko eta, horrekin lotuta, mezu publizitarioa sartzeko.



Puntuazio zeinuen garrantzia

Prozedura

Bikoteka bilduko zarete. Puntuazio marka batzuen definizioa emango dizuegu. Badakizue zer puntuazio zeinuak diren ondoko definizioek adierazten dituztenak? Bi ariketa daukazue hemen. A ariketan hamar puntuazio zeinuren ezaugarriak/erabilerak dituzue eta adibideari erreparaturik zein puntuazio zeinu den asmatu behar duzue. B ariketan, berriz, hamabost dira daukazuen erabilera/ezaugarriak. Ea zein bikotek asmatzen dituen hogeita bostak!

A) atala (iturria: www.ikasbil.net)

1. Gutunetan, hasierako agurraren ondoren [redacted]
Adb.: Lankide hori: Jaso nuen otsailaren seiko zure gutuna.

2. Laburduraren ondoan [redacted]
Adb.: Or. (orrialde) pta. (pezeta)

4. Norbaiten hitzak aipatzen direnean, aipamena maiuskulaz hasten delarik [redacted]
Adb.: Galdera hau egin zidan emakumeak: Non dago hondartza?

6. Klausula bateko esaldiak bereizteko, pausaldia egiten denean [redacted] jarriko da.
Adb.: Kalera bazoaz, eros ezazu egunkaria.

7. Deikia edo bokatiboa esaldiaren hasieran doanean [redacted]
Adb.: Aizu, izaro, zatoz lehenbailehen.

8. Enumerazio baten aurretik [redacted]
Adb.: Lau urtaroak hauek dira: udaberria, uda, udazkena eta negua.

9. Ideia beraren bi alde desberdin adierazten dituzten bi perpausen artean [redacted]
Adb.: Ezin dezakegu horrela jarrai; hondamendira goaz zuzen-zuzenean.

10. Perpaus baten barruan, esandakoa argitzeko edo osatzeko beste esaldi bat tartekatzen denean [redacted]
Adb.: Koldo, Maiteren anaia, eberra joan da.

B) ariketa

- 1.- Izenordain eta aditzondo galdetzaileekin baita galderazko perpausekin ere erabiltzen dira. Atzean ezin da punturik jarri.**
- 2.- Behaketak edota datuak tartekatzeko erabiltzen dira.**
- 3.- Testu baten zatiren bat aipatzen ez dugunean jartzen dira.**
- 4.- Testuko aipamenak giltzaperatzen ditu ; zentzu ironikoa, zakarra edo arrotza adierazteko erabiltzen da ; gaitzizenak eta izengoitiak azpimarratzeko ere bai.**
- 5.- Lerro baten amaieran hitza banatzeko erabiltzen da; hitz elkartuak lotzeko; zenbaki-korrelazioa adierazteko.**
- 6.- Egiturari dagokionez, garrantzirik handiena duen zeinua da, perpausak banatzen baititu. Esanahi osoa duen aldia ixteko erabiltzen da.**
- 7.- Perpausari bakarrik ematen dio amaiera.**
- 8.- Elkarriketetan, pertsonaia bakoitzak esandakoa eta kontalariaren oharra eta azalpenak adierazteko.**
- 9.- Azalpen oharra (datak edo aipu baten autorearen izena) adierazteko ere erabiltzen dira.**
- 10.- Elementu guztiak biltzen dituen hitz baten bidez iragarritako zerrenda baten aurretik jartzen dira.**
- 11.- Beste norbaitek esandako zerbait hitzez hitz errepikatu dela adierazteko; artikulua, olerki edo lan baten zati baten izenburua adierazteko, besteak beste.**
- 12.- Paragrafo baten amaiera adierazten du.**
- 13.- Idatzi osoaren amaiera adierazten du.**
- 14.- Egin behar diren pausaldi laburrak edo txikiak adierazteko erabiltzen da.**
- 15.- Amaitu gabe dagoen perpaus edo zerrenda baten ondoren jartzen dira.**

Puntuazio markarik gabeko testua duzue honako hau. Lehendabizi saiatu irakurtzen. Zer, zaila ezta? Ondoren, jarri falta dituen puntuazio markak goiko definizioetan oinarriturik.



ETBegira "Munduan zehar"

Laster hasiko da berriro Euskal
Telebistan Munduan zehar programa
hil honen 23an hain zuzen esan
digutenez eta seguru aski ordubete
iraungo du lan-taldea honako hauek
osatuko dute Mikel Urretabizkaia
lehen ere saioaz arduratzen zena
Felipe Etxeberria eta Ana Azpirik
azken honek egingo du saioaren
aurkezpena.

Idatzi ondoren, irakurri ozenki taldekideen aurrean, eta erabaki denon artean idatzi duzuen testuak puntuazio egokia duen ala ez.

Zirriborroa idatzi eta pixkanaka-pixkanaka ukituak eta zuzenketatxoak egin dituzue lan sekuentzia honetan eman dizkizuegun jarraibideak lagun. Orain, taldeka, ikaskideen zirriborreen zuzenketa egingo duzue. Zuen ere zuzenduko dute eta iradokizunak idatziko. Horretarako, honako txantiloi hau erabil dezakezue.



AZALPENAREN ZIRRIBORROA ZUZENTZEKO KONTROL ZERRENDAA		BAI	EZ	IRADOKIZUNAK
SARRERA	• Irakurleak ikusiaz bat, badaki zein den gaia. • Euskal literatura eta ahozko literaturari buruzko ezaugarri orokorrak aipatzen dira. • Lanaren justifikazioa egiten da.			
GARAPENA	• Gaia paragrafotan sailkaturik dago. • Paragrafoak puntu eta apartez mugaturik agertzen dira. • Datuak hurrenkera zehatz, argi eta ordena baten arabera azaltzen dira. • Ideiak argi eta ulergarri adierazten ditu. • Gaia garatzeko informazio nahikoa ematen du. • Hartzaileari informazio berria eskaintzen dio • Hitz ezezagunen esanahia argitzeko baliabideak erabiltzen dira • Testuko ideiak lotzeko zenbait testu antolatzaile erabiltzen dira • 3. pertsonan idatzita dago.			
ONDORIOA	• Hitz gutxitan laburtu du informazio nagusia.			

3. LAN-SEKUENTZIA

AHOZKO AZALPENAK NOLA EMAN? EZAUGARRIAK

Lan-sekuentzia honek ahozko azalpen on bat egiteko hitzezko zein ez-hitzezko diren zenbait komunikazio baliabide aztertzea du helburu.

Horretarako, bideo batzuk ikusiko dituzue eta behaketatik abiatuta, ondorioak aterako dituzue.

10.jarduera. Ereduak aztertzen.

Jarduera honetan azalpen testuen ezaugarriak gogoratzen saiatuko gara. Gogoratu gaztelania arloan landutakoa azalpen testuen ezaugarriei buruz (13., 14. eta 15. jarduerak). Badakizue zein diren idatzizko zein ahozko azalpenen ezaugarri orokorrak? Zeintzuk dira azpimarragarrienak? Nolako hizkuntza ezaugarriak dituzte azalpen testuek?

Zertan dira berdinak ahozko zein idatzizko azalpenak? Zertan ezberdintzen dira?

Azalpenen eredu batzuk ikusi eta entzungo dituzue eta ahozko azalpenaren ezaugarriak aztertuko.

Prozedura

Irakasleak zenbait bideo sekuentzia proiektatuko dizkizue. Sei bideoetatik bost aukeratu eta taldeka bilduta, bideo sekuentzia bakoitza ikusi ondoren, guk proposatzen dizuegun txantiloian ezaugarri orokorrak bertan zehaztu.

Ondoren, ikastaldekoak bilduta denon iritzia entzun eta txantiloian falta zaizuen idatzi.

Materiala

1. bideo sekuentzia (Dorleta Alberdi)
- 2.bideo sekuentzia (Abel Ariznabarreta)
3. bideo sekuentzia (Joseba)
4. bideo sekuentzia (Arantxa Aurrekoetxea)
5. bideo sekuentzia (Luistxo Fernandez)
6. bideo sekuentzia (Iker Mertxan)



EREDUAK AZTERTZEN

	1. bideoa	2. bideoa	3. bideoa	4. bideoa	5. bideoa
1. Hasierako agurrik egin du?					
2. Sarreran aurkezpenik egin du? (parte hartzaileena, gaiarena...)					
3. Sarreran azalduko duenari buruzko zertzelada nagusiak adierazi ditu?					
4. Azalduko duenari buruzko gidoia, eskema edota sumarioa aurkeztu du?					
5. Zeinetan antzematen da ondo azalpenaren beraren egitura? Sarrera, garapena eta ondorioa?					
6. Beste baliabiderik erabili du (ppt diapositibak, arbela, gardenkiak, fotokopiak...)?					
7. Zer eginkizun dute euskarriek? Era egokian erabili du hizlariak					
8. Azalpenari lagundu dio euskarri horrek?					
9. Garapenean, entzuleengana hurbiltzeko ahaleginik egin du? (ahots tonua aldatuz, lekutik altxatu eta entzuleengana joanez... galderak eginez...)					
10. Urduritasuna antzematen zaio?					
11. Azaldu beharrean irakurri egin du?					
12. Entzuleei begira aritu da denbora guztian, begirada beheratu gabe.					
13. Lasai agertu da eta gaia menperatzen duela erakutsi du?					
14. Amaitzeko, esandakoa laburbiltzen duen esaldirik edo adierazi du?					
...					

Zuen ustez, goiko ezaugarriei erreparaturik, zein hizlarik egin du azalpenik onena? Zergatik?

Talde osoa bilduta, aipatu hautaketaren zergatiak eta irakasleak arbelean idatziko ditu.

Jarduera honetan ahozko azalpenaren zenbait ezaugarri besterik ez duzue aztertu, hurrengoetan, berriz, azalpen egoki eta on batek beharko lituzkeen baliabide eta ezaugarrietan sakondu ahal izango duzue...

11. jarduera. Ez-hitzezko ezaugarriak.

Keinuak, imintzioak, eta gorputz jarrerak aztertuko dituzue, hau da, jendaurreko jardunean hitzezkoak ez diren eta zaindu behar ditugun zenbait mugimendu.

Ahozko azalpena egitean zein diren egokiak eta erabat desegokiak diren jarrerak, keinuak... aztertuko dituzue.

Prozedura

Taldeka bildu eta ondoko koadroetan adierazita dituzuen ezaugarrietan aukeratu egokienak jendaurreko azalpen egokia egiteko.

KEINUAK



1. Entzuleei begira egon zaitez denbora guztian, bizkarra eman gabe eta begirada beheratu gabe.
2. Ez altxatu behin ere jarlekutik, ez eta eskemak, grafikoak eta abar erakusteko ere, eta ez fotokopiak irakasleari edo ikasleei emateko ere.
3. Komeni da entzuleetako alderdi bat baino gehiagori begiratzea, baina bereziki irakasleari eta zure adiskideei.
4. Ez egon buru makurtuta azalpena irakurtzen ari zarela.
5. Lasaitasun itxura egin behar duzu eta gaia menperatzen duzula erakutsi.
6. Azalpenean hasi baino lehen, erlaxa zaitez eta lasai hartu arnasa minutu batzuetan. Horrek lasaitasuna eta konfiantza emango dizkizu.

7. Oroit zaitez eskuak eta aurpegia espresibitaterako tresnak direla.
8. Ez da komeni txiklea jatea edo ahoaren aurrean eskuak, boli bat edo paper bat edukitzea.
9. Eserita bazaude azalpenean, altxa zaitez eskema, grafiko, taula edo mapa erakusten duzunean, hura esplikatuta ahal izateko.
10. Komeni da keinu eta mugimendu bortitz askorekin erakustea gaian askojakina zarela.



ETENAK

1. Komeni da azkar hitz egitea eta etenik kasik batere egin gabe, gehienezko denboratik Ez pasatzeko.
2. Azalpenaren haria galtzen baduzu, eten bat egin eta berriz irakurri gidoia edo ekarri dituzun notak.
3. Ahal duzun aldiro, hitz makulu bat errepikatu: *zea... osea, hau da, bueno, etaaaa*, baina ez egin inoiz etenik.
4. Segi iezaiezu testu idatziko etenei, bai lerroalde artekoei nola ideia nagusia duten enuntziatuen artekoei.



AHOTSA

1. Ahots tonua aldatzeak lagun egiten du zenbait hitz edo enuntziatu gako azpimarratzen eta haiei enfasi handiagoa ematen.
2. Inportantea da beti bolumen bati eustea, ahal bezain ozen hitz eginaz edo oso apal mintzatuz Ez inor gogaitzeko .

BESTE BALIABIDE BATZUK

1. Beste zenbait baliabidek (eskemak, grafikoak, taulak eta mapak) toki gutxi hartu behar dute eta ez du inporta entzuleek ez ikustea.
2. Beste zenbait baliabide erabiltzea lagungarria da diskurtsoaren haria argitu, esplikatuta edo mantentzeko.

Orain egizue zeuen datuen taula. Kontrol orri gisa ere erabili ahal izango duzue geroago; bertan, ez-hitzezko komunikazioari lotutako ezaugarri egokiak adieraziko dituzue.

KEINUAK	ETENAK	AHOTSA	BESTE BALIABIDE BATZUK

12. jarduera. Azalpenarekiko interesa mantentzeko zenbait estrategia.

Hartzailearen arreta azalpenaren gaiarekiko lortzeko, zeintzuk izan litezke estrategia erabilgarrienak?

Jarduera honetan arreta erakartzeko estrategiarik baliagarrienak aztertuko dituzue. Horretarako, hitzezko zenbait baliabide izango dituzue aztergai aurreko jardueran ikusitako bideoak oinarritzat hartuta.

Prozedura

Bildu zaitezte taldeka eta lehendabizi aurreko jarduerako bideo-sekuentziak aztertu aurretik, irakurri arretaz ondoko testu hau. Datu jakingarriak dituzue bertan.

Irakurri ondoren, aztertu arretaz aurreko bideoak eta bete beheko behaketa-txantiloia.

KOMUNIKAZIO EGOERARI DAGOKIONEZ

Lehenbizi, berriro gogorarazi behar dizuegu nortzuek osatzen duten komunikazio egoera. Ikasle bat edo batzuk dira, "adituen" papera hartu dutenak entzuleen aurrean (ikasgelako gainerako ikasleak). Igorlearen asmoa, kasu horretan hartzaileei ezagupen bat helaraztea da; horiek, arretaz entzun behar dute gai baten gainean zerbait ikasi edo lehendik dakitena sakontzeko. Marka deiktikoek hasierako egoera hori islatzen dute aditzeko pertsonetan eta singular zein pluraleko lehenbiziko izenordain pertsonaletan (ni/gu / zuek): ...*halako gaiaz hitz egingo dizuet...*; ...*delako gaia jorratuko dugu...*; *zuetako askok entzun izango duzue noski ... aipatzen...* "Adituaren" papera ere ongi landu behar da, entzuleen eta "adituaren" arteko tarte ahalik eta gehien gutxitzeko.

Fase honetan komeni da zenbait baliabide erretoriko praktiko kontuan izatea komunikazioa hobetzeko, hala nola:

- **Galderak egitea entzuleen arreta harrapatzeko eta garatu behar den gaira hurbilarazteko.**
- **Galderak egitea entzuleek azalpenari segitzen diotela segurtatzeko.**
- **Ozenki eta argi mintzatzea, eta behar diren geldiuneak egitea, esaten duzuen ongi ulertzen dela segurtatzeko.**
- **Sarreraren azalpenaren gidoia edo parteak aurkeztea, argi uzteko zer eduki esplikatu diren eta zer hurrenkeratan.**
- **Behar diren dokumentu lagungarri guztiak prestatzea.**

ESTRATEGIAK	1. bideoa	2. bideoa	3. bideoa	4. bideoa	5. bideoa
Galdera erretorikorik egin du?					
Elkarrekin bizi izandako esperientziak edota elkarrekin ikasitakoa...aipatu du?					
Ikasleei, ikaskideei, aipamen zuzenak egin dizkie?					
Erregistro aldaketarik egin du?					
Umorea ageri da?					
Entzuleen maila balioesteko ahaleginik egin du?					
Amore eman du? Onartu du kontrako ideiarik?					

Jarduera honen bukaera gisa ondoko kontrol txantiloia idaztea proposatzen dizuegu. Bertan, ez-hitzezko eta hitzezko estrategia eta baliabiderik erabilgarriek zehaztuko dituzue. Eta hurrengo lan-sekuentzian burutuko duzuen ahozko azalpenean erabiltzen saiatu!

Estrategiak kontuan hartzeko Kontrol-zerrenda

Ez-hitzezko ezaugarriak	1.- 2.- 3.- 4.- 5.- 6.-
Hitzezko ezaugarriak	1.- 2.- 3.- 4.- 5.- 6.-

Talde handian hitz egingo duzue orain irakaslearen laguntzaz eta erabaki denon artean zeintzuk diren azalpenean kontuan hartu beharreko ezaugarri nagusiak.



13. jarduera. Hizkuntza-erregistroa.

Zer da erregistroa? Hona hemen hiztegiak dakarrena:

Erregistroa da hiztun batek harreman, asmo, gai, formaltasun-maila eta testuinguruko beste hainbat faktoreren eraginez erabiltzen duen hizkera.

Jendaurrean egingo duzun azalpenak honako ezaugarri zehatz hauek ditu:

1.- aurrez planifikatuta dago

2.-erregistro formala izango du.

3.-entzuleen araberrako egokitzapena beharko du, hau da, azalduko duzuen hartzaileen mailara egokitu beharko duzue

Edozein testu prestatzean eta ekoiztean, kasu honetan jendaurreko azalpena, funtsezkoa da komunikazio egoerara egokitzea.

Erregistro formala diogunean, ikasgelako kideen aurrean egingo duzun azalpena bada ere, jarduna ezin izango da lagunen arteko erregistro hurbilekoa izan; beraz, hizkuntza molde estandarra erabiliko duzue, neutroa eta maila jaso, formala, emango diozue. Horretaz gain, gaiaren eta azalpenaren ezaugarriak hartu beharko dituzue kontuan.

Prozedura

Taldeka arituko zarete. Lehendabizi, bideo pasarte bat ikusiko duzue. Protagonistek lagunarteko hizketa, hitanoa, darabilte. Ikusi ondoren, elkarrizketaren transkripzioan falta diren hutsuneak beteko dituzue.

Testua osatuta eta talde handian zuzendu ondoren, berriro bildu eta testu osoa erregistro estandarrera aldatuko duzue eta kutsu formala, jaso, ematen ahaleginduko zarete. Horretarako, lagungarria izan dakizueke gaztelania arloan egindakoa kontuan hartzea, testu formalari dagozkion ezaugarriak erreparatzea, alegia.

Aldatu beharko dituzuen lagunarteko esapideak azpimarratu egin dizkizuegu.

Azkenik, ikaskideen aurrean antzeztuko duzue erregistro formalera aldatu duzun testu hori.

(Ariketaren iturria: www.ikasbil.net)



[Gaizkiulertua](#)

GOENKALE telesaioko eszena bat da; bi lagunen arteko elkarrizketa. Diru-kontu bat dela eta, horietako batek azalpenak eskatzen dizkio besteari. Baina, gaizkiulertu bat besterik ez da izan eta dena argitzen da.

Ikusi arretaz eszena. Gero, bete hutsune bakoitza adizkietatik dagokiona aukeratuz:

Duk	Utzidak	Emaiek	Zagok
Diat	Duk	Ezak	Huen
Dakik	Zegoan	Badidak	Dituk
Hadi	Nioan	Dik	nian

Gaizkiulertua

Martin: azaltzen, Paul

Paul: Berandutxo azalpenak ematen hasteko, ez uste?

Martin: Tira, Paul, hainbeste urtetako adiskidantza ez horrela amaitzerik. Utzidak gutxienez...

Paul: Bota, bota beharrekoak!

Martin: Hau guztia gaizkiulertu bat besterik ez izan. Hiri laguntzea besterik ez buruan. Sozioari dirua eskatu , baina... berak ezetz; horrelako dirutza ez dela muxu-truk ematen, zerbait nahi zuela trukean

Paul: Ia, eta hik nire taberna eskaini

Martin: Dirua berea , ez nirea, ez beste modurik

Paul: Bukatu duk? asko egiteko

Martin: Sinesten ez , begiratu bat paper hauei

Martin: Zer nahi duk hauek ere sinatzea? Tabernaren beste erdia saldu behar duk, akaso?

Martin: Ez hain umea izan Paul! Makina txanpon-jalearekin ateratako diruaren ziurtagiriak Diru hori hirea duk Paul; irabaziaren nire zatia.

Paul: Begira Martin, ez didak berriro ziria sartuko, ez diat higandik ezer gehiago jakiterik nahi.

Martin: Begira hire kontu korrontea. Hoge mila euro dituk. Ba al zenbat den hori?. Mirenen tratamendua hasteko balioko.....

Paul: Bai, egun on bai. Begira, gauza bat ziurtatu nahi nuen, ea azken boladan nire kontu korrontean diru-mugimendurik egon den ala ez. A! Izena? Paul Batiné, eta kontu korrontean azken lau zenbakiak 3707. Um, hoge mila euro, ia. Eta jakin al daiteke nork egin duen diru-sarrera hori? Martin Irureta. Oso ondo. Bale, eskerrik asko

Lagunarteko hizkeraren zenbait ezaugarri entzun eta irakurri dituzue. Gai zarate orain zerrendatxo labur batean ezaugarri horiek aipatzeko? Bost bat ezaugarri baino ez dizkizuegu eskatuko:

ADITZA	LEXIKOA	SINTAXIA
Aditz pertsona	Nolako hitzak ageri dira? Teknikoak, kultuak, arruntak...?	Perpausei erreparatu. Luzeak, laburrak dira?
Markarik badu aditzak? Zein-zeintzuk	Elipsirik ageri da? Non? Adibidez	Zer motatakoak dira nagusi?
Elipsirik ageri da? Non? Adibidez:	Adjektibo ugari ageri da? Zergatik?	Menpeko perpausik bada?

Jendaurreko azalpenari lotzen zaizkion hainbat ezaugarri aztertu dituzue dagoeneko, hala nola, keinuak imintzioak, arreta mantentzeko zenbait estrategia eta erregistroa...

Azken sekuentzian, jendaurreko azalpena burutuko duzue.

4. LAN-SEKUENTZIA

JENDAURREKO AZALPENA BERA

14. jarduera. Ahozko azalpenaren hezurdura prestatzen.

Jarduera honen helburua jendaurrean azalduko duzuen gaiaren hezurdura prestatzea eta ikaskideei ematea da, azalpenaren datu nagusiak, eta jakin beharrekoak, bertan idatz ditzaten. Era berean, zeuok ere azalpenean zehar 'txuleta' moduan erabiliko duzue.

Ahozko euskal literatura Kurrikulu edukia izanik, taldeka azaltzen dena ikastaldea osatzen duzuen kide guztiok jaso eta jakin beharko duzue. Beraz, azalpenerako lagungarri izango da goian esandako hezurduraz gain, zenbait datu ere ematea. Bestalde, zeuok erabakiko duzue azalpenaren lagungarri zer nolako baliabideak erabiliko dituzuen (diapositibak, fotokopiak...).

Prozedura

Taldekideok bildu eta azalduko dituzuen datuetan oinarrituta, funtsezkoenak, hau da, jakin beharrekoak, zehaztu eskema baten bidez eta horren hezurdura prestatu. Zenbait datu aipatu eta beste batzuk aipatzeke utzi, ikaskideek betetzeko. Hezurdura hori abiapuntutzat hartuta, azalpenean zehar emango dituzuen daturik esanguratsuenak idatziko dituzte ikaskideek.

Hezurduraren fotokopiak atera eta ikaskideei banatu. Irakasleari, berriz, azalpenaren testu osoa emango diozue.

15. jarduera. Praktikatzen eta prestatutakoa berrikusten.



Jendaurrean aritu aurretik oso inportantea da azaldu beharrekoa daukagun denborara doitzea. Hamar minutuko azalpena burutu beharko duzue eta hiru taldekide zarete.

Prozedura

Taldean bilduta, jendaurrean arituko bazinete bezala jardungo duzue elkarrekin eta baloratu egingo duzue, kontrol-zerrenda erabiliz, nola aritzen zareten eta nolako akatsak egiten dituzuen, jendaurrera aurkeztu baino lehen, zuzendu ahal izateko.

Ezer egiten hasi aurretik, bestalde, erabaki egin beharko duzue nork zer atal azalduko duen eta baliabide guztiak prestatu. Azalpena prestatzen laguntzeko, hona hemen sarean topatu dugun baliabide apropos bat. Kontuan hartu eta erabil ezazue.

AZALPENERAKO PRESTAKETA TAULA

Iturria: Maite Goñi <http://euskaljakintza.blogsome.com/>

HASIERAKO AGURRA	Kontua entzuleak adi jartzea da, guri entzuteko gogoia piztu behar dugu atal honetan. (Zer azalduko diegu? Nola hurbilduko gara entzuleengana?) <i>Adibidez: "kaixo, denbora asko pasa dut hau prestatzen, eta ea gustatzen zaizuen...", edo, "oso erraza da egitera goazena, adi-adi entzun...", edo, "bueno, espero dut ez duzuela lorik hartuko...". Edozer gauzak balio du, kontua entzuleak adi jartzea da, guri entzuteko gogoia piztea.</i>
ZERTAZ HITZ EGINGO DUZU?	Tarte honetan idatzizko eskema erabili. (Sarrera/Garapena/Ondorioa)
AZALPENA	
BUKAERAKO AGURRA	(Entzuleei agur esatea). <i>Adibidez: "hauxe zen dena, espero dut ulertu izana...", edo, "zer, interesgarria dela lehoien bizimodua?...", edo, "ez dakit ondo azaldu dudana baina...". Edozer gauzak balio du, entzuleengandik agurtzea da helburua.</i>

Esan bezala, goiko prestaketa taulaz gain, honako kontrol-zerrenda hau ere hartu beharko duzue kontuan. Irakasleak erabiliko du zuen jardunaren ebaluazio- txantiloia gisa. Zuek kontrol- zerrenda gisa erabil dezakezue.

AHOZKO AZALPENERAKO KONTROL-ZERRENDAA

AHOZKO AZALPENERAKO KONTROL-ZERRENDAA		BAI	EZ
AURKEZPENEAN	- Gaia aurkeztu du - Taldea eta taldekideak aurkeztu ditu. - Azalduko duenari buruzko eskema aipatu du.		
GARAPENEAN	- Atalak ongi bereizi ditu. - Atal bakoitzeko ideiak argi, zehatz garatu ditu.		
BUKAERAN	- Azaldutakoaren ondorio gisako ideia nagusia adierazi du. - Hurrengo kideari txanda eman dio.		
ESTRATEGIAK	- Ahotsa ondo kontrolatu du (tonua, bolumena, erritmoa...) - Etenaldiak ondo azpimarratu ditu - Hitzik esanguratsuenak indartu egiten ditu. - Ondo ahoskatu du. - Keinuak eta gorputz jarrera egokiak ditu - Lagungarri moduan beste baliabide batzuk erabili ditu. - Adibideak eman ditu, azalpenak, pasadizoak kontatu... entzuleekiko inplikazioa lortzeko ...		

16. jarduera. Jendaurrean azaltzen.

Orain jendaurrean aritzeko unea iritsi da. 15. jardueran talde txikian egin duzue praktika alditxoak, eta azalpenean zaindu beharrekoak zehaztu eta baloratu egin dituzue, ezta? Dagoeneko prest zaudete ikaskideen aurrean aritzeko. Bestalde, kontuan izan era guztietako lagungarriak erabil ditzakezuela azalpena argia eta zehatza izan dadin (fotokopiak, diapositibak...) .

Prozedura

14. jardueran prestatutako hezurdura erabiliz jendaurrean arituko zarete hamar minutuan. Zaindu hitz egiteko txandak eta orain arte ikusitako eta landutako ezaugarri eta estrategia guztiak.



Irakasleak aurreko jarduerako kontrol-zerrenda ebaluazio txantilo gisa erabiliko du zuen ahozko jarduna baloratzeko. Ikaskideek, berriz, 14. jardueran prestatu dutuen hezurdura erabiliko dute azalpenean zehar emango dituzuen daturik esanguratsuenak jasotzeko. Zuek azalpena eman ahala eskeman falta diren edo guztiz osotu barik dauden daturik esanguratsuenak idatzi beharko dituzte eta horrela, ahozko euskal literaturari buruzko informazioa ahalik eta modurik zehatzenean jasoko. Halaber, galderak egin eta azalpen osagarriak eska ditzakete.



17. jarduera. Ondo jaso ditugu entzundako datuak?

Jarduera hau burutzeko irakaslearen laguntza duzue ezinbestekoa. Berarekin batera txantiloietan jaso dituzuen datuak zuzenak diren ala ez egiaztatuko duzue, eta, hala behar balitz, eskemak zuzendu edota falta zaizkizuen datuak idatziko dituzue.

Ondoren, bildu eskema guztiak; horrela, zuetako bakoitzak euskal ahozko literaturari buruzko ikuspegi orokorra, ikaskideek azaldua, izango du eskuartean. Zertarako? Unitatean ikasitakoaren ebaluazio gisa egingo duzuen galdetegiari erantzuteko!



Unitate honek bete nahi izan dituen helburuak asko izan dira: euskal literaturaz gozatzea, euskal literaturaz gehiago jakitea eta ahozko azalpen ona egitea.

Helburu asko eta denak garrantzitsuak, hirurak lortu dituzue?

AUTO-EBALUAZIOA

ZER IKASI DUT IKASTUNITATE HONETAN?

Ahozko euskal literaturari buruz hauxe ikasi dut:

Azalpen testuei buruz hauxe esan dezaket:

Jendaurreko azalpen ona egiteko hauxe hartu behar da kontuan:

Ondoko taula honetan euskal ahazko literatura lantzeko unitatean egindakoari lotutako adierazleak dituzue. Esan zein den lortze-maila, mailarik altuena 5a izanik eta baxuena 1., biribildu hautatzen duzuen.

Orain ezagutzen ditut euskal literaturako zenbait adierazpen.	1 2 3 4 5
Adierazpen literarioen inguruan hausnarketa egin dut.	1 2 3 4 5
Sormenezko lanak (ipuinak, bertsoak, kanta...) idazteko interesa izan dut.	1 2 3 4 5
Literatura ondare kultural gisa balioesten dut	1 2 3 4 5
Emandako gaia garatzeko azalpen testuei dagozkien ezaugarriak aztertu eta erabili ditut.	1 2 3 4 5
Lana planifikatu dut.	1 2 3 4 5
Azken produkzioari begira informazio era egokian bilatzen eta aukeratzen saiatu naiz.	1 2 3 4 5
Informazio nagusiak eskematxo bidez adierazi ditut.	1 2 3 4 5
Kohesio elementuak egoki erabili ditut	1 2 3 4 5
Komunikazio helburua, egoera eta hartzailearen ezagupena aintzakotzat hartuta, estrategia egokiak erabili ditut ahazko azalpena burutzeko.	1 2 3 4 5
Ahazko azalpenean informazioa zehatz eta ordenaturik eman dut.	1 2 3 4 5
Azken ekoizpenerako material osagarria prestatu dut.	1 2 3 4 5
Badakit talde lanetan eztabaidatzen eta lan egiten.	1 2 3 4 5
Errespetatu dut ikaskideek egin eta esan dutena.	1 2 3 4 5